

Testu baten zuzenketa enkargatzeko dekalogoa

Bezeroak eta
zuzentzaileak
jakin
beharrekoa

**Erabaki baduzu zure testuari
zuzenketaren bat komeni
zaiola eta ez badakizu nola eta
nori enkargatu, gida honek
lagunduko dizu.**

**Zuzentzailea bazara eta bezero
izan litekeenari azaldu behar
badiozu zuzenketa mota
bakoitza zertan datzan eta nola
fakturatzen den, hementxe
dituzu zenbait erantzun.**

1. Zergatik profesional bat kontratatu testu baten zuzentzeko

Testu bat sortzeko, gaitasun zerbait behar da. Testua hizkuntza alorrean profesional den batek —izan idazle, izan itzultzaile, izan irakasle— sortu badu ere, zuzenketa behar da, inor ez baita guztiaren jakitun eta edonor tronpa baitaiteke. Testu bat idatzi eta begiak haren gainean hara-honaka hainbat aldiz ibili ostean, hutsak ez dira jadanik ikusten. Begi berri eta horretan iaioak behar dira orduan.

Hormak margotzen jakiteak erakusketa baterako margolan bat pintatzeko gai izatea ez dakarren bezalaxe, hizkuntza naturalki erabiltzeak ez du esan nahi ortografia eta gramatika ongi ezagutzen direnik.

Zerbait egoki ez dela ohartu ezean, ezin da hobetu, eta, zerbait gaizki dela jakin ezean, ezin da aldatu. Horregatik jo behar da profesional batengana.

Testu bat zuzentzea ez da soilik idazte akatsak eta ortografia hutsak kentzea; hartara, ez da aski zuzentzaile automatikoa pasatzea, ez eta testua jende askok arretaz irakurtzea ere. Zuzentzea langintza bat da, eta, horren egiteko, hizkuntza jakiteaz gain, testuetan arazoak aurkitzeko eta zuzentzeko ohitura duen profesionalaren trebetasuna ere behar da.



Testuaren idazleak badaki zer esan nahi duen, baina irakurleak, ez; kalitate kontrola behar da irakurtzen dena esan nahi zena ote den eta nahi zen moldean esana ote den antzemateko.

2. Zuzentzailearen zeregina

Testu on batek gainditu behar duen lehen galbahea ortografia arauena da, baina ez da galbahe bakarra. Akademia batek, estilo liburu batek edota aditu batek ezarritako arauak aplikatzeaz gain, hizkuntza bakoitzaren izaera berezia osatzen duten ohiturak eta erabilmoldeak ere ezagutzen ditu zuzentzaileak; ideiak elkarrekin lotu edota banantzeko mekanismoak ere aplikatzen ditu; puntuazioa ongi ezagutzen du, eta testua hitzetan jori bihur dezake.

Estilo liburu bakoitzak argitalpen multzo batean edota enpresa batean (argitaletxe bat edo egunkari bat, adibidez) idazteko erabili behar diren arauak ezartzen ditu. Irizpideak zehazten ditu, zenbait alorretan zehaztu ere, hala nola maiuskulen eta minuskulen erabilerari, letra etzanen edota komatxoaren erabilerari edo oin oharrei eta bibliografia erreferentzietan buruz; horrenbestez, laguntza zaie idazle, editore eta zuzentzaileei erabakiak hartzerakoan, eta koherentzia ematen die hura aplikatzen zaien argitalpen guztiei.

Estilo libururik ez eta editorerik ere ez denean, zuzentzaileari dagokio haiek eskaini izango zituzketen erabaki guztiak hartzea. Lan gehigarria zaio, bai testua aztertzen, liburuak kontsultatzen eta hausnartzen eman behar duen denborarengatik, bai eta bere gain hartzen duen erantzukizunarengatik ere.

Zer egiten duen zuzentzaileak

Zuzentzailea hizkuntzari adi dago, eta hura idazlanaren xedera egoki dadin saiatzeko da. Halatan, bada, testua hobetzea dagokio.

Baina juntagailuaz beterik legokeen testu on bat, testu okerra ez izanik ere, kalitatea eta adierazkortasuna galdutako testu bat litzateke. Zuzentzaileak, horri erreparatu, eta beste molde batzuk ere sartuko ditu (*halere, nahiz eta, nolana*hi ere, *ordea*...), esaldi bakoitzaren aurkaritza mailaren arabera eta gerta daitezkeen kakofonia eta errepikapenak ere kontuan hartuz.

Zuzentzaileak bere gain hartuko dituen zereginak bezeroak eskatutakoaren mendekoak eta testu motaren arabekoak izanik ere, honako hauek dira ohikoenak:

- Ortografia hutsak hauteman eta zuzentzea.
- Hiztegi akatsak konpontzea.
- Testuaren hitz joritasuna eta aniztasuna areagotzea.
- Sintaxi akatsak zuzentzea (juntagailu edo lokailu desegokiak, aditz denborak gaizki erabiltzea, komunztadura, deklinabidea...).
- Sintaxia eta puntuazioa aldatzea, testua dotoreago egiteko, edo gogorrago, edo ez hain etena, edo...
- Puntuazioa aldatzea, testua ulergarriago gerta dakion irakurleari.
- Arau zehatzik ez duten ortografia eta tipografia baliabideak (maiuskulak, letra etzana, letra lodia...) testuaren berezitasunei erantzunez erabiltzea.
- Hartu diren irizpideak berdin erabiltzea testu osoan zehar.



Zuzentzailea hizkuntzari adi dago. Akatsak zuzendu, eta laguntzen du testuak modu eraginkorrago batean bete dezan egilearen adieraznahia. Alabaina, bezeroarentzat ari bada ere, beti du gogoan irakurlea duela bere egitekoaren hartzailea.

Zer ez duen egiten zuzentzaileak

Zuzentzailea ez da idazlea; ez da edukien editorea, ez eta maketatzaileria ere; ez da komunikazio aholkularia ere. Gerta daiteke zuzentzaile zenbaitek zerbitzu horiek ere ematea ongi baino hobeki, baina halakoak zuzentze lanaz kanpokoak dira.

Idazle onek testua zuzen dakien eskatzen dute. Ongi dakite zuzenketa on batek hobetuko diela bere idatzi dutena. Zuzentzaileak ez du testuaren edukia asmatzen; ez du egilearen estiloa sortzen edota aldatzen ere. Bere ezagutza guztiak estilo horren zerbitzura jartzen ditu, ordea.

Zuzentzailearen egitekoen artean ez da honako zeregin hauetakorik:

- Testu bat idaztea.
- Norbaitek idatzi duena berriz idaztea.
- Testu bateko ideiak antolatzea.
- Itzulpen baten leialtasuna edo kalitatea berraztertzea.
- Komunikazio estrategien gaineko aholkuak ematea.
- Testuko datuak edo haren egiazkotasuna egiaztatzea.
- Egilearen berezko estiloa aldatzea.
- Eleberrri baten argumentua eta pertsonaien koherentzia aztertzea.
- Bere esku hartze guztiak banan-banan arrazoitzea.
- Egiten dituen aldaketen oinarri teorikoak azaltzea.
- Testua berrikustea egileak zerbait aldatu nahi duen bakoitzean.



Zuzentzea ez da hizkuntza eskolak ematea. Zuzentzaileak testua hobetzen du, baina ez dagokio egindako aldaketa bakoitzaren arrazoia azaltzea edota bere erabakiak arrazoitzea, medikuek giza fisiologia xeheki esplikatzeko duten bezala edo mekanikari batek lau denborako motorraren funtzionamendua luze eta zabal azaltzen ez duen bezala.

Zer egin dezakeen zuzentzaileak, hala adostuz gero

Testu jarraitua zuzentzeaz beste, zenbait zeregin har dezake zuzentzaileak bere gain, hala eskatzen bazaio eta horretarako baldintza ekonomikoak adostuz gero:

- Gaikako aurkibideak egitea bukatua den testu baten gainean.
- Datuak egiaztatzea kanpoko iturriak baliatuz.
- Testua jatorrizkoarekin erkatzea.
- Beste hizkuntza batzuetako hitzak transkribatu eta egokitzea.
- Hizkuntza erregistroa edo dialekto aldaerak egokitzea.
- Testua laburtzea maketa edo luzera jakin batera egokitzeko moduan.

Bibliografia emateko, nazioartean badira zenbait sistema. Zuzentzaileak ezagutzen ditu haien arteko aldeak, eta testu baten bibliografia erreferentzietan aplikatu ditzake arauak; horrek testu jarraitua zuzentzea baino denbora luzeagoa eskatuko dio.



Zuzentzaile aritzeko ez da aski hizkuntza batean ongi mintzatzea; ez da aski liburuak irenstea edo literaturarako grina sentitzea ere. Filologo edo hizkuntza irakasle izatea ez da nahikoa testu bat hobetzeko; horregatik, zuzentzailea hautatzerakoan ez zaio soilik espediente akademikoari so egin behar.

3. Testua hobetzeko prozesua

Testu bat lantzeko eginbide onena lehenik editatu eta gero zuzentzea da. Ez da prozesua egiteko manera bakarra, baina badira, ordea, denbora luzean zehar eraginkor suertatu diren zenbait urrats.

Testu baten kalitatea bermatzeko gutxieneko faseak honako hauek dira: editatzea, jatorrizkoa (edo estiloa) zuzentzea, lehen probak (edo ortotipografia) zuzentzea eta editorearen azken orrazketa.

Komeniko litzateke, testua behin baino gehiagotan zuzenduz gero, zuzenketa bakoitza pertsona batek egin dezan, profesional onenei ere ihes egiten baitiete akatsek, hiru arrazoi hauengatik: lehenik, zuzenketa mota bakoitzean arazo jakin batzuk xerkatzen direlako; bigarrenik, inor ez delako gai etengabe eta bete-betean adi izateko; hirugarrenik, inor ez delako orojakile.

Pertsona bakar batek eginez gero zuzenketa lan guztiak, lanaren kalitatea ez da horren ona izanen; zuzenketa bakarra besterik ez eginez ere hala gertatuko da.

Testua editatzeko eta estiloa zuzentzeko, eraginkorragoa da formatu elektronikoa aritzea, hau da, testu prozesadore baten. Lehen zuzenketan, ortografia eta tipografia ere orrazten dira, baina horrek ez du kentzen gero, testua jadanik maketatua denean, ortotipografiaren zuzenketa egin beharra, paperaren gainean (horixe da egokiena) edo euskarri informatikoan.



Ortotipografia bi aldiz zuzendu behar litzateke beti; bigarren zuzenketan, ziurtatu behar da aitzineko orrazketan seinalaturiko zuzenketak sartu direla, eta testuko nahi gabeko mugimenduak edo akatsak ere xerkatzen dira orduan.

Zuzentzea ez da editatzea

Testu baten editatzeak honako ekintza hauek dakartza:

- Egiaztatzea hizkuntza erregistroa testuaren xedeari egokitzten zaiola eta, egokitzapenik behar bada, halakoak egitea. Egiteko hori bereziki garrantzitsua da testua sail bateko parte bada, bilduma batean sartutako libururen bat bada edo aldizkako argitalpen bateko artikulua bada.
- Testuaren edukian ikusten diren hutsalkeriak hautematea (halakorik badago) eta haren egituraren argitasuna eta eraginkortasuna aztertzea. Testu zatiak berrantolatzea, testuaren azalpen, argudio edota narrazio xedek bete daitezen.
- Ahal den neurrian, kontzeptu akatsak, barne ahultasunak, anakronismoak eta edukizko bestelako arazo batzuk hautematea.

xv. mendearen erdialdean britainiar uharteetan gertatzen zen eleberrri batean, protagonistak patata jaten ari ziren. Editoreak, anakronismo hori ekiditeko, patataren ordez arbia eman zuen. Halakoak hautematea edota konpontzea ez da zuzentzailearen egitekoa, baina, halarik ere, funtsik gabea iruditzen zaion oro seinala dezake zuzentzaileak, bezeroak hala eskatuz gero; horregatik, bada, hizkuntza zuzentzaileari balio erantsia dakarkio testuari loturiko alorreko kultura ezagutzeak.

- Testuak hala eskatuz gero, irudiak bilatzea (hala adostu bada).
- Zuzentzaileentzako irizpideak ezartzea aukeran diren ortografia, tipografia, hiztegi eta gramatika gaietan.
- Jatorrizkoa maketarako prestatzea: izenburuen kategoriak eta hierarkia seinalatzea; goi indizeak, oin oharren markak, oharren korrelazioa eta testu jarraitua ez den beste zeinahi elementu.
- Hala eskatu bazaio, izenburu kategoria bakoitzaren ezauzgarri tipografikoak seinalatzea, bai eta testuaren beste alde batzuetakoak ere (gorputz nagusia, irudi oinak, taulak, etab.).
- Hala eskatu bazaio, gaikako aurkibideko sarrerak hautatzea.



Editatzeko zeregina gero eta maizago murrizten edo, are, erabat kentzen da, batez ere norberak argitaratutako liburuetan. Bada editore lanak egiten dakien zuzentzaile anitz, baina zeregin gehigarria zaio hori zuzentzaileari, esperientzia handiaren beharra eskatzen duena, bai eta nork bere irizpideak sortzeko gaitasuna eta hizkuntza zuzenketa gehitzen zaion denbora ere; hartara, zuzenketa arruntarena baino tarifa goragoa behar du.

4. Zuzenketa motak

Zuzenketa mota bakoitza testua idazteko prozesuaren une bati lotua da, eta, horregatik, bakoitzak hizkuntzaren alde jakin bati behatzen dio; burmuinak irakurketa mota bat egiten

du zuzenketa mota bakoitzean. Zuzenketa mota zenbait aldi berean egiteak kalitatea kenduko dio lanari, ezin baita guztiari adi egon aldi berean.

Estilo zuzenketa

Honako egiteko hauek dakartza:

- Hiztegi akatsak eta doitasun ezak ezabatzea.
- Hiztegia joriago egitea.
- Hitz betegarriak eta akastunak ezabatzea.
- Gramatika akatsak zuzentzea.
- Testua arauetara eta finkaturiko ohituretara egokitzea.
- Estilo libururik bada, haren aginduak testuan aplikatzea.
- Sintaxi ahultasunak (komunztadura, aditz denborak, atzizki eta aurrizkien erabilera, fraseologia, etab.) konpontzea.
- Testua arindu eta egokitzea, sintaxi baliabide zehatz eta ongi landuak hautatuz (diskurtso lokailuak, mendeko per-pausak, kalko okerrak zuzentzea, anaforak eta kataforak, etab.).
- Testua hizkuntzaren arauen arabera puntuatzea, esan behar duena esan dezan, nahi den estilora egokituz.

Testua hizkuntza aldetik sinesgarri eta ulergarri egitea irakurriko duenarentzat. Estilo zuzenketa testu prozesadorez egin ohi da; horrek sakon aritzeko aukera ematen dio zuzentzaileari. Horrez gain, aldaketen kontrola aktibaturik ematen zaio bezeroari testua, egin zaizkion aldaketak banan-banan ikusi eta, nahi duenaren arabera, onar ditzan edo ez.

*Film honen buruketan, ez da animaliarik kaltetu esaldian ez da hizkuntzaren arauen kontra doan ezer, baina ez da euskaraz berez sortuko litzatekeen esamolde bat. Gaztelaniaren kalkoa ageri zaio; euskaraz, errazago litzateke nominalizazioa desegin eta aditz egitura lehenestea: *Film hau egitean, ez zaio minik egin ezein animaliarri*. Zuzentzaile on batek hala aldatuko luke esaldia. Puntuazioan ere, hizkuntza bakoitzak bere arauak ditu, eta, guztiok berdin-berdin erabiltzen ez baditugu ere eta puntuazio jori nola eskaseko testu anitz oso testu onak izanik ere, ongi puntuatzeak erruz laguntzen du hala testua ulertzen nola erritmo onean irakurtzen.*



Hiztegia aberasteko ikasketarik ez da, eta ezagutzen ez diren hitzak ez dira erabili behar. Zuzentzaile onak ondare idiomatiko aberatsa izaten du, eta testuaren mesedetan baliatzen du.

Zuzenketa ortotipografikoa

Honako ekintza hauek biltzen ditu:

- Estiloa zuzendu ostean ortografia eta puntuazio akatsak zuzentzea, halakorik geratuz gero.
- Ortografia hizkuntzaren arauen eta nazioarteko irizpideen arabera ematea.
- Arau zorrotzik ez dagoen orotan egiaztatzea betetzen direla estilo liburuaren edota editorearen irizpideak: maiuskulen erabilera, siglak eta laburdurak (deklinabidea barne), kopuru eta kantitateen idazkera, elkarrizketetako puntuazioa narratiban, sinboloen arteko tarteak, letra lodiaren eta etzanaren erabilera, komatxoak, etab.

- Arau edo gida baten pean ez diren kontuetan, zuzentzaileak tipografia arloko ohitura eta erabileren gainean duen ezagutza baliatzea. Horrez gain, testu bakoitzari egokien zer zaion ere erabakiko du.
- Erreferentzia gurutzatuen fideltasuna ikuskatzea.

Zuzenketa hori jadanik maketatua den testu baten gainean egiten bada, honako alde hauek ere zaindu beharko ditu zuzentzaileak:

- Orrialde hasieran edo amaian isolaturik geratzen diren leerroak (lerro alargunak eta leerro zurtzak).
- Silaba errepikapenak elkarren jarraian doazen lerroetan eta gaizki banatutako hitzak.
- Hitzen arteko edo elkarren jarraian doazen lerroen arteko zuriune handiegia.
- Elementu grafikoak (banalerroak, koadroak, etab.).
- Tauletakoen errenkaden eta zutabeen lerrokatzea.
- Zenbakitzea (irudiak, oharrak, epigrafeak, etab.).
- Orriaren orrikoa (goiburua eta orri oina).
- Izenburuen kategoriak eta letra mota.
- Aurkibidea testuarekin berarekin bat etortzea.
- Bibliografia ikuskatu eta horretarako irizpideak batzea (hala adostu bada).

Badira zenbakien, matematika zeinuen eta neurri unitateen idazkera arautzen duten nazioarteko arauak. Zuzenketa ortotipografikoan, arau horiek bete daitezzen zaintzen da.

Adibide baterako, gradu zentigraduen zeinua ez da zero txiki bat, ez eta *o* letra goratu bat ere; berezko zeinua du, eta zuzentzaile profesionalak badaki zein den eta nola eta non jarri behar den. Gauza bera gertatzen da biderketa zeinuarekin ere: ez da *ix*, kenketarena gidoia ere ez den bezala. Zuzentzaileak, $-17.C$ kendu, eta $-17^{\circ}C$ jarriko du.

Zuzenketa ortotipografikoa paper gainean egin ohi da, al-daketak alboetan eskuz idaztea baitzaio zuzentzaileari, fase honetan, bide lasterren eta eraginkorrena. Horrez gain, bezeroari ere hori zaio proposatu zaizkion aldaketak errazen ikus-teko bidea.

Zuzenketa ortotipografikoa pantailan PDF formatuan egite-ko ohitura zabaltzen ari da, baina ez da gomendagarri, zuzen-tzaileari lan denbora bikoiztu baino gehiago egin baitiezaioke horrek; horrez gain, erruz areagotzen du maketatzailleak alda-ketak sartzean akatsak egiteko arriskua ere.

Zuzentzaileak maketaren gainean lan egitea ere ez da go-mendagarri, aldi berean zuzenketari eta maketazioari jarri beharko baitie arreta, eta lanaren kalitatearen kalte gerta dai-teke arreta bi lanei jarri behar hori.

Ortotipografia zuzentzean, ez da atzera egiten, hau da, ez dira jadanik gramatika edo hiztegi akatsak bilatu edota zuzendu behar; halakoek estilo zuzenketan desagertuak behar dute jadanik.

Proben zuzenketa

Azken zuzenketa da, eta bururatua den testuaren gainean egiten da, hau da, argitaratzeko moduan den testuan. Honako zeregin hauek biltzen ditu:

- Ikuskatzea ea egin diren aurreko zuzenketan agindutako aldaketak.
- Egiaztatzea ezer ez dela mugitu aurreko ikuskapenaren on-doren.

- Segurtatzea elementu grafikoak aski kalitatezko eta irakurgarri direla.
- Formatu elektronikoa zeinahitan argitaratzeko diren testuetan, komenigarri da azken ikuskapen bat egitea, guztia bere lekuan dela eta, estekarik bada, halakoak indarrean direla ziurtatzeko.

Zeinahi zuzenketa motatan, profesionalaren aldaketak eta iradokizunak dira haren esku hartzearen bururapena. Bezeroak horren ondoren zerbait aldatuz gero testuan, edo beste aukeraren baten gainean galdetuz gero zuzentzaileari, lan gehigarritzat hartuko da.

5. Nola egin aurrekontua

Zuzenketa lan baten aurrekontua egiteko, testua zer luze den jakin behar da, bai eta zer egoeratan den eta nolako esku hartzea egin behar zaion.

Nola adierazi testuaren luzera

Zuzentzaileek matrizetan neurtu ohi dute lan bolumena; matrizeak, testu prozesadoreetan, karaktereak eta zuriuneak dira, hau da, letra bat matrize bat da, eta hitzen arteko zuriunea beste matrize bat.

Testuaren luzera hitz kopurutan emanaz gero ere kalkula daiteke, zehatz-mehatz, zenbateko lan bolumena den.

Testu baten luzera orrialdeka ez adierazteko arrazoiak

Jende batzuei erosoago zaie Arial 14 letraz idaztea, eta beste batzuek nahiago dute Times 9 erabili; alboetan marjina berdinak emanik, lehenari 300 hitz-edo sartuko zaizkio orrialde batean, eta besteari, berriz, ia 900, hau da, zuzentzaileak hiru aldiz lan gehiago ukanen du irakurtzen, aztertzen eta zuzentzen.

Bada orrialde estandar bat: 70 matrizeko 30 lerro. Hartara, 2.100 karaktere biltzen ditu, zuriune eta guzti, orrialde estandar batek; datu hori emanez gero soilik balia daiteke orrialdeen kopurua testu baten luzera adierazteko.

Zergatik eskatzen duen zuzentzaileak testua ikustea

Gerta daiteke bezeroak horrenbesteko luzera duen testu baterako aurrekontua eskatzea, informazio gehiagorik eman gabe. Mekanikari bati «autoan gaizki dena konpontzeko» aurrekontua eskatzea bezala litzateke hori.

Testua ikusi gabe, ezin da jakin zenbateraino aritu behar den haren gainean, eta, hartara, ezin lana baliozta. Aurrekontua testua —edo haren zati zenbaiten lagin handi bat bederen— ikusi ondoren egiten da.



Aurrekontua emanez gero testua ikusi gabe, baliteke zuzentzaileak aitzinetik erabaki izana zenbat denbora emanen duen lan horretan, kontuan hartu gabe zenbat behar lukeen testua ongi gera dadin. Halakoetan, oso litekeena da emaitza ez egoki izatea.

Testu gehienetan, zenbait esku hartze maila hauta daiteke, lasai-lasai, eta berdin ulergarri eta guztiz onargarri izanen dira, halere, guztiz berdin edo estilistikoki berdin edo berdin ulergarri ez badira ere.

Eman berri dudan azken esaldi horretan ez da akatsik, eta, hartara, zuzentzaileak ezer aldatu gabe utz lezake. Halarik ere, izenondo batzuk aditz bihurtuz, testua arindu eta hobeki ulertuko litzateke. Horrenbeste *berdin* errepikatu gabe ere hobetuko litzateke esaldia. Azkenik, puntuazioa eta juntagailuak zertxobait aldatzeak biribil lezake esaldia. Hiru esku hartze maila horietan aritzeak zenbait lan indar eta gaitasun eskatzen dizkio zuzentzaileari.

Horrez gain, nolako zuzenketa nahi den ere zehaztu behar da. Bezeroak dirua aurreztu nahian ortotipografia besterik ez zuzentzeko agintzeko tentazioa badu eta estilo zuzenketa aurretik egin gabe bada, zuzentzaileak ez ditu kontuan hartuko maila horretako arazoak.

Zuzentzaileak ondorioztatuko du ematen zaion testua behin betikoa dela. Baldin eta bezeroak aldaketak egiten baditu zuzentzaileak zuzenketa egin ondoren, profesionalak beste aurrekontu bat egin beharko du, eta beste epe bat zehaztu.



Ortotipografia besterik ez zuzentzeko agintzen bazaio zuzentzaileari eta estiloa aurretik zuzendu gabe bada, oso litekeena da zuzentzaileak ez onartzea lan hori, ikusirik beraren eskuetatik igaro ondotik ere testuak ez duela izanen behar lukeen kalitatea.

Nola heldu azken preziora

Zuzenketen tarifak mila matrizeko multzo bakoitzeko eurotan adierazi ohi dira.

Estilo zuzenketaren zuzenketa ortotipografiarena baino garestigoa da, eta, ortotipografia bigarren aldi batez zuzenduz gero, bigarren zuzenketa hori lehenengoa baino merkeagoa izanen da.

Zuzenketa lanetarako ez da tarifa ofizialik. Azken prezioa profesional bakoitzak ezarritako tarifen arabera izanen da. Halatan, bada, lan bera egiteko, aurrekontu oso merke bat, beste bat oso garestia eta beste zenbait tarteko jaso daitezke. Bezeroak behar du erabaki zein egokitzen zaion ongien eskatzen duen zerbitzuari, eta eskaintzen zaion zerbitzuaren beste ezaugarriak ere kontuan hartu.

Ehun galtza pare egiteko, guztiak batera moztu, eta denbora aurrezten da; horrek galtza pare bakoitzaren prezioa apaltzen du. Ehun izozki saltzeko, oreka aldi batez egin, eta denbora eta argindarra aurrezten dira. Ehun orrialde zuzentzean, ordea, ez da ezer aurrezten, ezin baitira bi paragrafo batera zuzendu.

Zuzentzaileak orrialde guztiak, lerro guztiak, hitz eta letra guztiak, zuriune eta puntuazio marka guzti-guztiak irakurtzen ditu. Ez zaitez fida lan kopuruaren arabera beharpenak edo testu kopuru ezezagun baterako tarifa laua eskaintzen dizkizun zuzentzailearekin: lan gutxiago eta okerrago egitea eskaintzen ari zaizu.

Nornahik kronometra dezake zenbat denbora hartzen dion testu baten irakurtzeak. Bada, zuzentzaileak, irakurtzeaz gain, aldatu beharrekoa aldatzeari ere ekinen dio, eta, ez gutxitan, eskuliburuak eta hiztegiak begiratzeari. Baliteke atzera egitea ere, irizpideren bat aldatu edota lehen atera zaion zerbait atera berri zaionarekin bateratzeko. Ez da zaila kalkulatzeko. Ez da zaila kalkulatzeko. Ez da zaila kalkulatzeko.

litekeen gutxieneko zentzuzko tarifa, zuzentzaile batek zeregin horretan ogibidea atera dezan.



Zerbitzu bat kontratatzean ez da soilik lanean emandako denbora ordaintzen, zerbitzuaren kalitatea ere ordaintzen baita, eta horretara heltzeko ikasketa urteak, birziklatze ikastaroak, kontsulta liburuak eta metaturiko esperientzia. Zuzentzaileari ez zaio soilik egiten duena ordaintzen, dakien eta testua hobetzeko erabiltzen duen hori guztia ere ordaintzen zaio; kontuan har ezazu aurrekontua aztertzerakoan.

6. Nola fakturatu

Zuzenketa zerbitzu bat da, eta Ogasunak horretarako ezarritako baldintzak bete behar ditu.

Espanian, zuzenketari eta edizioari BEZ tasa orokorra ezartzen zaie; ez tasa murriztua, ez eta supermurriztua ere.

Itzulpenak eta idazketak BEZ salbuetsia dute baldin eta egiten dituenari egite eskubideak onartzen bazaizkio.

Horrez gain, bezeroa zerga egoitza Espainian duen enpresa bat bada, PFEZa atxiki beharko du. Norbanakoek enkargaturiko lanetan ez da PFEZ atxikipenik.

Zuzentzaileak faktura bat egin beharko du, bere datuak (izena, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia) eta bezeroarenak emanaz eta fakturatzen duen lanaren zereginak azalduz.



Lan bat faktura gabe eta BEZik aplikatu gabe kobratzea iruzur egitea da. Legeak ezarritako baldintza oro betetzen dituen faktura bat profesionaltasun seinalea da. Ez zaitetz fida faktura gabe lan egitea eskaintzen dizun zuzentzaileaz.

Ordaintze baldintzak

Zuzenketaren alorrean, lana enkargatzean aurrerakin bat eman ohi da, bezeroa norbanako bat edota sektorean esperientzia urria duen enpresa bat bada.

Lana enkargatzean, komeni da adostea ea zatikako ordainketarik edota entregarik izango ote den, bai eta horretarako baldintza oro ere. Zuzentzaileari lasaitasuna ematen diote zatikako ordainketek. Aldi berean, jadanik landu diren zatiak entregatzeak —guztiz bururatuak ez badira ere— erakusten du lana bidean doala; halatan, bada, zuzentzailea egiten ari dena ikus dezake bezeroak, eta, beharrik ikusiz gero, beste bide batetik eraman dezake alde bat edo beste (baita enkargua deuseztatzeraino ere, adostu dituzten baldintzetan).

7. Zenbat denbora behar den

Zuzentzaileak testua irakurtzen du, arreta handiz irakurri ere, eta, maiz, liburuak edo bestelako baliabideak ere kontsultatu behar ditu. Testu bat esaten duen guzti-guztia eta esateko moduz xehetasunik galdu gabe irakurtzeko behar den abiadurak mugatzen du zenbat lan egin daitekeen egun batean; muga hori gaingiduz gero, testuak behar lukeen arreta murrizten da.

Estilo zuzentzaile batek egunean 60.000-100.000 matrize zuzen ditzake (bigarren kopurua, testua oso ongi badago eta oso esku hartze txikia eskatzen badu), betiere Word edo bestelako testu prozesadoreren bat erabiliz gero. Ortotipografia zuzentzean, 100.000-125.000 matrize inguru lant daitezke egunean (bigarren kopurua, testua jadanik oso garbi bada, be-

tiere testu jarraitua bada, taularik edo antzekorik gabe), betiere paper gainean edo testu prozesadorez (ez PDF formatuan).

Kopuru horiek kontuan hartuz eta testuaren luzera ezagutzuz, haren zuzentzeko beharko den gutxieneko denbora kalkulatu daiteke.

Gogoan har ezazu estiloa eta ortotipografia batera lantzea bietako bakoitzean jartzen den arretaren kaltetan gertatzen dela. Denbora aurrezteak kalitatea apaltzea dakar. Zenbat eta gehiagotan irakurri, hobeki aterako da testua.



Ez zaituz fida baldin eta agintzen badizute zentzuzko lan kargak onartzen duen baino lasterrago zuzenduko dizutela testua. Badira abiadura handian irakurtzeko teknikak, baina ez da hori kalitatezko zuzenketa baterako behar dena, ezpada xehetasunei adi eta kontzentraturik egotea.

8. Nola jakin zuzentzaile bat egoki ote den ene testurako

Zuzentzaile askok ofizioan arituz ikasi dute, egun diren formakuntza titulu gutxiak berriki sortuak baitira; hortaz, zuzentzaile batek titulurik edo horretarako formakuntzarik ez izateak ez du esan nahi halakoak dituen baino zuzentzaile okerragoa denik lehena. Beste alde batetik, ez filologia ikasketek ez eta hizkuntz irakaskuntzakoek ez dituzte eskaintzen zuzentzaileak behar dituen berezko ezagutzak, ez eta esperientziarik ere ofizioan.

Beste zerbitzuetan bezalaxe, intuizioz edo norbaiten gomendioz hautatzen da, maiz, profesional bat edo beste bat, baina badira hautaketan lagun dezaketen mekanismoak ere.

Zuzentzaileari egin dituen lanen gaineko argibideak eska dakizkioke; argialetxe batekin behin baino gehiagotan aritu bada, pentsa daiteke bezeroa pozik dagoela haren lanarekin.

Zentzuzkoa da bezeroak zuzentzailegaiari eskatzea bere testuarekin eginen lukeenaren egiazko lagin bat; zuzentzaileak, bestalde, testuak zenbateko esku hartzea behar duen aztertu ondoren, aurrekontua egiaztatzeko balia dezake lagin hori. Laginak ez du izan behar 4.000-6.000 matrizekoa baino luzeagoa (2-3 orrialde).

Egileren bati bururatu zitzaion laginak zuzentzaile askori eskatu eta bakoitzari liburuaren zati bat igortzea, azkenean testu osoa urririk zuzendua ukan nahian. Emaizta ez zen, noski, ona izan, zuzentzailearen egitekoetan baita aukerako den guztia bateratzea; baliteke egileak, besteen lana gutxiesteaz gain, bere lanaren kalitatearekin ere batere axolarik ez izatea.

Probako lagin hori ikusiz, bezeroak erabaki dezake lana fidagarri zaion ala ez. Alabaina, ez dezala pentsa berak eginen lukeen ber gauza eginen duenik zuzentzaileak, eta ez dezala eska zuzentzaileak egin duen aldaketa bakoitzaren azalpen zehatzik ere; ez luke, segur, hala jokatu iturginak berogailua konponduko balio.



Zuzentze prozesuak ez dakar berekin bezeroaren eta zuzentzailearen arteko etengabeko elkarrizketa bat; horretan datza, beraz, hautatzen duen profesionalarengan konfiantza izatearen garrantzia.

9. Espezializazioak

Zuzentzaile profesional batek erregistro ertaineko zeinahi testu zuzen dezake. Halarik ere, zuzentzaile batzuk ez dira narrazio testuekin aritzen; beste batzuk ez dira zientzia hizkeran trebatuak, eta badira ekonomia alorreko teknizismoak menderatzen ez dituztenak ere.

Baldin eta zure testua espezializatua bada edo hartzaile mota jakin batentzat bada, komeniko litzateke zuzentzaileari jakinaraz zeniezaion; horrez gain, halako testuak zuzentzen esperientzia duela frogatzeko ere eska diezaiokezu.

Errusiako basoei buruzko dibulgazio liburu bat zuzentzeko, baliteke ez basoetako ekologiari buruz dakien zuzentzaile baten beharrik izatea; bai, aldiz, erussia zer bait dakien eta errusiar izenak transkribatzeko irizpidea aplikatzeko gai den norbait.

Zuberoa aldean giroturiko eleberri bat bada, berriz, egiazta ezazu hautatzen duzunak badakiela zubereraz *lotsa* hitzaren erranahia ez dela Euskaltzaindiaren Hiztegiko lehen lau adierei jarraikiz ulertu behar, baizik eta bosgarren eta azken adierari jarraikiz.



Testu espezializatueterako, zuzentzaileak ezagutza jakin batzuk behar lituzke. Horrenbestez, matematika liburu baterako, gaiari dagozkion kontzeptuak, hizkera eta ortografia ezagutzen dituen norbait behar zenuke; baliteke, hala ere, zuzentzaile horrek genetikaren gaia, adibidez, ez menderatzea.

Gaiaz gain, badira zuzentzaile bat bestea baino egokiagoa egiten duten bestelako faktore batzuk ere. Testua formalta edo

informala izan liteke, literaturakoa, publizitatekoa, zientziakoa, merkataritzakoa, didaktikoa...; espezializazioaren arabera ere hauta zenezake profesionala: narrazioa, saiakera, dibulgazioa, gidaliburua, eskola liburua, zientzia...

10. Bai, zuzentzaile profesional bat kontratatuko dut

Zorionak! Erabaki bikaina hartu duzu, zure testuari diozun estimuaren erakusle. Labur esanez, hona hemen testu baten zuzenketa kontratatzerakoan kontuan hartu beharreko xehe-tasun garrantzizkoenak.

Lana enkargatu aurretik

- Adieraz ezazu testuaren luzera ; matrizetan (zuriuneak eta karaktereak), ahal baduzu.
- Zehaztu ezazu nolako zuzenketa nahi duzun, zuzentzaileak zer hobetu behar lukeen.
- Esan ezazu lana noizko nahi zenukeen buruturik.
- Igor ezazu testu osoa edo testuaren lagin zabal bat (zenbait pasarte).
- Testu osoa igorri ezean, zehaztu ezazu ea baduen taularik, bibliografiarik edo testu jarraitua ez den bestelako elementurik.
- Segur ez bazara profesional hori lanerako egoki ote den, eska iezaiozu proba bat.

Lana enkargatzeko

- Baiezta ezazu onartzen dituzula aurrekontua, ordaintze baldintzak eta igortzeko epea.
- Igor ezazu testua ahal bezain xahu: ausazko nabarmentzerik edo tabulaziorik gabe.
- Uste baduzu nabarmentze zenbait (letra etzana, lodia, maiuskulak) beharrezko direla, jar ezazu zuzentzailea jakinaren gainean, eta azal iezaiozu zer irizpide erabili duzun.
- Adieraz iezaiozu zuzentzaileari betekizun jakinen bat ba ote duzun: testuaren tonua, aldatu gabe atxiki nahi duzun zerbait, eskualdeko hizkuntza bariazioak, azentu markak, ager ez daitezen nahiago zenituzkeen hitzak...

Lana jasotzean

- Ez pentsa zuzentzaileak bere erabaki eta ekintzak banan-banan azalduko dizkizunik.
- Irakur ezazu azken aldi batez: hutsak azken unera arte atxiki ohi zaizkio testuari.
- Eman ez badizute, eska ezazu faktura.
- Lanak pozik utzi bazaitu, heda ezazu ezker-eskuin zuzentzaile profesionalen lanak testuak hobetzen dituela.



Erakuts ezazu zure testuaren zuzenketa, kalitatea axola zaizula frogatzeko eta kalitate kontrolaz arduratu zarela azaltzeko. Horren egiteko, eman ezazu zuzentzailearen izena kredituetan. Dena den, gerta liteke zuzentzaileak kredituetan azaldu nahi ez izatea, proposatu dizkizun zuzenketa eta aholku guztiak onartu ez bazaizkio.

Lan handia gertatu zaizu liburua izkiriatzea, webguneko testuak prestatzea edo zure ikasleentzako eskuliburua idaztea.

Eraikina ongi eraikia da jadanik. Orain, zaindu gabe utziko ote duzu luzitzea? Ez zaizu axola leihoak ez ongi hestea? Berdin zaizu teilatuaren diseinua zein den?

Izen zehaztugabeak, aditz errepikatuak, atzizki desegokiak, aditzondo motelak, esaldi anbiguoak, dotorezia eskaseko sintaxia, puntuazio desegokia, ortografia okerra... Zuzentzaile profesionalak soilik arduratuko dira horiez guztiez trebeki.

Eraikin sendo batek akabera onenak merezi baititu, xerka ezazu litekeen zuzenketarik onena zure testurako.

Jatorrizko izenburua: **Decálogo para encargar la corrección de un texto**

Jatorrizko testua: **Pilar Comín Sebastián, 2017**

Diseinua eta maketazioa: **Mariana Eguaras**

Edukiaren ikuskapena eta zuzenketa (gaztelaniaz):
Mercedes Tabuyo, Lorena Martínez eta Nuria Ochoa

Itzulpena: **Bakartxo Arrizabalaga Labrousse**

Zuzenketa: **Amaia Apalauza Ollo eta Iñigo Roque Eguzkitza**

Unión de Correctores www.uniondecorrectores.org

EIZIE – www.eizie.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin

Aurkibidea

- | | |
|----|---|
| 1 | 1. Zergatik profesional bat kontratatu testu baten zuzentzeko |
| 2 | 2. Zuzentzailearen zeregina |
| 6 | 3. Testua hobetzeko prozesua |
| 8 | 4. Zuzenketa motak |
| 13 | 5. Nola egin aurrekontua |
| 17 | 6. Nola fakturatu |
| 18 | 7. Zenbat denbora behar den |
| 19 | 8. Nola jakin zuzentzaile bat egoki ote den ene testurako |
| 21 | 9. Espezializazioak |
| 22 | 10. Bai, zuzentzaile profesional bat kontratatuko dut |